



GIZARTE HEDABIDEAK

6

6

1. **Sarrera**

- 1.1. Gizarte Hedabideak
- 1.2. Jarduera-ildoen eskema
- 1.3. Aurrekontua

2. **Jarduera-ildoak**

- 2.1. Instituzio arteko harremanak eta berdintasun-politikak
- 2.2. Arauen garapena
- 2.3. Ente Público Radio Televisión Vasca-Euskal Irrati Telebista (EITB)
- 2.4. Ikus-entzunezko hedabideentzako baimenen kudeaketa

3. **Etorkizuneko erronkak**



GIZARTE HEDABIDEAK

1. Sarrera

1.1. Gizarte Hedabideak

Kultura Sailaren Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzak garrantzi handiko eginkizuna jokatzeko Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren antolamenduaren barruan. Zuzendaritza horrek dituen bi eginkizunekin lotura zuzena du garrantzi horrek: alde batetik Sailaren erakunde arteko harremanez arduratzen baita eta, bestetik, ikus-entzunezko hedabideekiko harremanez, kudeaketaz eta haien araubidez arduratzen baita. Bata zein bestea oinarri-oinarrizko eginkizunak dira kudeaketa demokratikoaren ikuspegitik begiratuz gero. Legebiltzarrarekiko eta beste erakundeekiko harreman guztietan gardentasuna, irisgarritasuna eta elkarrizketa malgua behar dira. Hedabideak zuzenean eskaintzen den edo irizpide publikoen bitartez arautzen den zerbitzu publiko baten moduan ikustea ere ongi egokitzen da giza eskubideen defentsa egiten duen gobernu baten ereduarekin.

Alor horietan, bietan, dituen eginkizunak gero eta exijentzia handiagoak dituzten testuinguru aldakorretan betetzen dira. Instituzioen arteko harremanak oinarritzko baliabideak dira, burututako jardura fiskalizatzeko ez ezik, baita gobernuko edo gizarte zibileko beste eragile batzuekiko zubiak eraikitze eta konfiantza sortzeko ere. Gaur egun, izan ere, gestio publikoak elkarlanean eta gogo-kidetasunean oinarritutako lan transbertsala eskatzen du, programen eraginkortasuna ziurtatu ahal izateko.

Beste alde batetik, 2010eko apirilko itzalaldi analogikoak eragin zuen aldaketa handi hartan hedabideen jardura arautzeko eginkizunak are garrantzi handiagoa du, egoera berriak dakarren erronka kontuan hartuz gero. TDT (Lurreko Telebista Digitala) abian jartzean sortzen den egoera berriari eduki- eta kanal-eskaintza guztiz zabala jartzen da ia euskal gizarte osoaren irismenean.

Zentzu honetan, bada, Testuinguruaren aldaketa horrek erronka handia ekarri dio Euskal Irrati Telebistari (EITB), bost telebista-kate eta bost irrati dituen Euskal Autonomia Erkidegoko lehen hedabide-multzoari, komunikazioaren errealitate berrira egokitu eta entzuleria barreiatzeko joerari aurre egin beharzagatik.



1.2. Jarduera-ildoen eskema

Kultura Sailaren Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzaren eginkizunak nahiko izaera desberdina duten bi jarduera-eremutan zentratzen dira; lehenengo eremua transbertsala da, argi eta garbi: Kultura Sailaren barruan, eta Kultura Sailari zuzenean laguntza eta aholkua emateko eginkizuna, instituzioen arteko harremanak eta berdintasun-politikak garatzeko eginkizunak hartzen ditu; bigarrenak, berari bereziki dagokionak, ikus-entzunezko hedabideak kudeatzea eta arautzea du helburua; beren artean lotura eskuak dituzten hiru jarduera-ildotan antolatuta dago, horregatik: hedabideak arautzea, EITB kudeatzea eta baimenak kudeatzea.

JARDUERA-ILDOAK
Instituzio arteko harremanak eta berdintasun-politikak
Arauen garapena
EITB
Ikus-entzunezko hedabideentzako baimenen kudeaketa

1.3. Aurrekontua

Kultura Sailaren Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzaren aurrekontua 150 milioi euro baino gehiagokoa da, eta Kultura Sailaren aurrekontu osoaren erdia da orain ere.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren gastuen aurrekontua zerbitzuz zerbitzu. 2009- 2010

	2009		2010	
	€	%	€	%
Egitura eta Laguntza	5.899.054	1,9	7.376.160	2,5
Gazteria eta Gizarte Ekintza	6.473.748	2,1	5.658.740	1,9
Kirola	14.261.334	4,7	14.958.194	5,0
Kulturaren Sustapena	31.000.350	10,1	34.420.765	11,6
Ondarea	35.954.838	11,8	30.141.546	10,2
Gizarte Hedabideak	155.189.336	50,8	150.180.000	50,6
Hizkuntza Politika	56.648.340	18,5	54.221.595	18,3
GUZTIRA	305.427.000	100,0	296.957.000	100,0

Aurrekontuaren kapituluz kapituluko banaketa aztertzen bada, aise ikusten da transferentzietara eta diru-laguntzetara bideratzen dela ia gastu osoa. Alderdi honetatik begiratuta, argitu beharra dago langile-gastuak Kultura Sailaren Egitura eta laguntza atalean kontabilizatzen direla.

Kultura Sailaren Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzaren aurrekontua kapituluz kapitulu, 2009 eta 2010

	2009		2010	
	€	%	€	%
2. Funtzionamendu-gastuak	180.000	0,1	180.000	0,1
4. Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak	143.602.371	92,5	140.000.000	93,2
6. Inbertsio errealak	75.000	0,0		0,0
7. Kapital-eragiketarako transferentziak eta diru-laguntzak	11.331.965	7,3	10.000.000	6,7
AURREKONTUA GUZTIRA	155.189.336	100,0	150.180.000	100,0

2. Jarduera-ildoak

2.1. Instituzio arteko harremanak eta berdintasun-politikak

Testuingurua. **Begirada transbertsal bat izan beharra**

Kultura Sailean zerbitzu askok programa desberdinetan elkarrekin lan egiten dutelako transbertsaltasunak ongi funtzionatzen baldin badu ere, beti behar izaten da Kultura Sail honen jarduera bere batasunean erakusten duen eta beste eragile eta administrazio batzuekiko harremanetan erreferentzia bat izango den begirada transbertsal bat. Kultura Sail honi lehenik eta behin Legebiltzarrekin eta gero gainerako instituzio eta administrazioekin harreman egokia izateko bidea leuntzen dion ikuspegi global bat, eskuartean dituen proiektuez.

Hain zuzen ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Eusko Jaurlaritzak onartutako Berdintasunerako Planak diotenaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioan garatu behar diren berdintasun-politikak transbertsaltasunez aplikatzekoak dira. Eta Zuzendaritza honi dagokio Kultura Sailaren barruan politika hori aplikatzea.

Komunikazioa eta koordinazioa. **Burututako jardueraren ardatzak**

Eusko Jaurlaritzako sail guztiek bezala, Kultura Sailak ere bai sektoreekin bai gainerako sailekin eta Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten gainerako administrazio publiko guztiekin harremanak eta komunikazioa izateko dinamika bat izaten ahalegindu behar du. Harreman horiek guztiz beharrezkoak dira Programak ahalik eta eraginkortasunik handienaz eta koordinaziorik hoberenaz garatzeko. Beste alde batetik, Kabinetearen ardura da Kultura Sailari ekitaldiak antolatzen eta Eusko Legebiltzarrekin eta gainerako instituzio guztiekin etengabeko elkarriketa malgu eta arin bat izateko behar den dokumentazio guztia prestatzen laguntzea. Hain zuzen ere, Kabineteak azkeneko bi urte hauetan izan duen jarduera ezin daiteke deskribatu programa berezien arabera, Sail honekin harremanetan dauden erakunde, instituzio eta enpresetan lanean diharduten pertsonetikiko harremanetan eraginkortasuna bizia-gotzeko harreman adeitsu, arin, pertsonal eta lau bat sustatzeko eta edukitzeko jardueren arabera baizik; hauek dira aipatu diren erakunde, instituzio eta enpresa horiek:

- Kultura Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza (Kabinetea, Komunikazioa, Koordinazioa eta Protokoloa).
- Eusko Jaurlaritzako Saisetako kabinete-zuzendaritzak.
- EITB erakunde publikoaren zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Legebiltzarreko harremanetarako Idazkaritza.



- Eusko Legebiltzarreko Kultura eta Gazteria eta EITBren Kontrolerako Batzordeen lehendakaritzak.
- Kultura Sailari dagozkion gaietarako talde sozialistaren koordinatzaileak.
- Legebiltzarkide taldeak.
- Harreman sarria duten erakundeak (Arartekoa, Autonomia Erkidegoak eta Europar Batasuna).
- Eta ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuak eskaintzen dituzten eragileak, batez ere.

Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzaren ardura da, bestalde, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusten diren neurriak eta Eusko Jaurlaritzak onartutako berdintasunerako Plana betetzeko neurriak bultzatzea, koordinatzea eta horretan laguntzea.

2.2. Arauen garapena

Testuingurua. **Eskumenak betetzea eta beharrezko arautzea**

Autonomia Estatutuak honela dio 19. artikuluko 3. paragrafoan: «Euskal Herriak erregula, sor eta atxiki ditzake bere telebista, irrati eta prentsa propioa, eta, oro har, bere helburuak lortzeko behar dituen giza hedabide guztiak». Artikulu horrek dioenaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Estatuak hedabideei dagokienez dituen oinarrizko arauak legez garatzea.

Martxoaren 31ko 7/2010 Legeak, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Orokorrak arauzko testu bakarrean bildu zuen ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua emateko oinarritzko araudi juridikoa. Arau horrek lekuz kanpo uzten ditu Euskal Autonomia Erkidegoak ikus-entzunezkoei dagokienez duen araudi juridikoan jasota dauden oinarritzko zenbait alderdi eta gaur egungo erregimen juridikoa eguneratzera behartzen du, Euskadiko ikus-entzunezko komunikazioaren sektoreak dituen premia berezietara egokitzeko.

Ikus-entzunezko komunikazioari buruzko dekretu berria. **Errealitatera egokitzea**

Martxoaren 31ko 7/2010 Legeak, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Orokorrak, ezartzen duen marko berrian eta geroztik orain arte garatu den araudian oinarrituta, Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzak Erkidegoaren eskumen-eremuan ikus-entzunezko komunikazioa arautuko duten oinarritzko arauak arau-tresna bakarrean bilduko dituen ikus-entzunezko komunikazioari buruzko dekretu berri bat prestatzen jardun du azkeneko urte hauetan. Ikus-entzunezko komunikazioari buruzko Dekretu-proiektua aurkeztu da eta onartzeko izapideetan aurkitzen da une honetan.

Berrikuntzarik garrantzitsuetako bat orain irratien portzentaje bat osorik euskaraz emititzen duten irratiei eskaintzen zaiela da, soziolinguistikazko irizpideak eta biztanleria kontuan hartuz, eta gainerako irratiei askatasuna ematen zaiela beren ordutegietako emisioen hizkuntza aukeratzeko. Era horretan finkatu egiten dira egiaz euskaraz diharduten irratia, eskaintza bi hizkuntzetan izango dela bermatzen da eta herritarrek emanaldiak nahi duten hizkuntzan entzuteko eta ikusteko duten askatasuna bermatzen da.

2.3. **Euskal Irrati Telebista (EITB) Erakunde Publikoa**

Testuingurua. **Itzalaldi analogikoaren ondoko errealitate berria eta sarrerak urritzea**

Euskal Irrati Telebista Erakunde publikoa maiatzaren 2ko 5/1982 Legearen aginduz sortu zen (Lege hori urriaren 11ko 4/1996 Legeak eta martxoaren 27ko 8/1998 Legeak aldatu zuten). EITB sortu zen une beretik herritarrei informazioa eskaintzeko eta euskal demokraziaren lagungarri izateko oinarritzko tresna bezala hartu zen, hezkuntza-sistemeekin elkarlanean jardunez eta euskal kultura zabalduz. Ikuspegi horretatik begiratuta, oso kontuan izan du beti euskara sustatzea eta bultzatzea.

EITBren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanak helburuak, jarduera-irizpideak eta jardueraren finantzaketa zehazten dituen hitzarmen batez eratzen da. Alde honetatik aipatu beharra dago etorkizunean ere kontuan hartu behar den aldaketa garai batean egin dela hitzarmen hori; itzalaldi analogikoak eta eskaintzen ugaritasunak eta askotarikotasunak eta, ekonomiaren krisiak agintzen duen egoeraren ondorioz, hedabide guztien publizitateagatik diru-sarreraren urritzeak markaturik.

2007-2010 kontratu-programaren garapena. **Izendatutako xedeak betetzea**

Eusko Jaurlaritzak eta EITBk sinatutako EITBren 2007-2010 kontratu-programa, EITBren aldetik irrati- eta telebista-emankizunen zerbitzu publikoa emateko konpromiso multzo bat definitzen duena, 2011rako ere luzatu egin zen.

EITBk aurreko kontratu-programan izendatutako helburuak bete ditu, programazio orokor bat eginez, Euskadiren irudia kanpoan zabalduz, ikus-entzunezkoen industriari lagunduz eta euskarari leku handiagoa emanez. Honi dagokionez, azpimarratzekoa da nabarmen handitu dela euskarazko telebistaren eskaintza, hasieran aurreikusitako orduak baino gehiago eskainiz eta hala euskararen normalizazio-bidean lagunduz.

2009az geroztik, telebistako programazio-apusturik esanguratsuenak honako hauek izan dira: eguneroko albistegien eskaintza, iritzi eta eztabaidako Programak, hurbileko eguneko informazioa, kirolaren trataera egituratzea, Ipar Euskal Herriko albisteen jarraipena (egunero emanaldi bat eta asteburuan emanaldi berezi bat eskainiz), azken berrien magazineen produkzioa, zinema-katalogo zabal bat eskaintzea, eta ETB1en eta ETB2n beren kabuz ekoiztutako prime timeko zabalkunde-Programak eta denbora-pasako eskaintzak.

Urte hauetan nazioartean zabaltzeko apustuak ere finkatu dira, ETBSAT eta Canal Vasco, adibidez; gauza bera egin du ETB3k; 2008ko urrian sortu zen, eta erreferentziatzko telebista-eskaintza bat egiten du haurrentzat eta gazteentzat. Azkenik, aurrekontuei dagozkien arrazoiengatik, atzeratu egin da azkeneko bi urte hauetan diseinatu eta prestatu den ETB4 abiarazteko unea.

EITB multzoak bost irrati ditu, horrez gainera (Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria, Gaztea eta EITB Musika); guztien artean egunean 300.000 entzuletik gora izan dituzte, eta zenbait unetan entzuleriaren gorakada handiak egin ditu, Gazteak batez ere.

Internet bidezko komunikazioari dagokionez, marka bakarraren barruan –eitb.com– egituratu dira kanal guztiak 2009az geroztik. *Home* horrek produktuaren indarra are gehiago indartzen duten kanalez eta gaikako edukiz eratutako barne egitura bat du. Hauek ditu ezaugarri nagusiak: lau hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez), etenik gabeko informazio-eskaintza bat, haurrentzako kanala, eta irrati- eta telebista-kanalak Internet bidez entzun eta ikusteko aukera.

2.4. Ikus-entzunezko hedabideentzako baimenen kudeaketa

Testuingurua. **Ikus-entzunezkoen errealitate berri baten arauzko antolamendua**

Euskal Autonomia Estatuaren 19. artikulua arabera ikus-entzunezko komunikazioari dagokionez ditugun esku-menon ondorioz, frekuentzia-modulazioarekiko uhin metrikoetako irrati-hedapen soinu-dunerako zerbitzuaren us-tiaketa egin dezakete; Administrazio Publikoek edo beren erakunde publikoek zuzenean; zeharbidez, Udal Korpo-razioek edo pertsona fisikoek edo juridikoek, eskumena ematen duen ezinbesteko baimena eskuraturik. Gai honen araudia azaroaren 11ko Frekuentzia Modulatuak Irratietarako Baimenak Emateari buruzko 240/1986 Dekretuan eta martxoaren 22ko Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Erakundeentzat Irrati-zerbitzu publikoa ematea arautzen duen 138/1994 Dekretuan finkatzen da.

Tokian tokiko TDT baimenei dagokienez, ohartarazi beharra dago, telebista mota hori zerbitzu publikotzat hartzen denez, behartuta dagoela administrazioaren baimena izatera, Hala, bada, urriaren 3ko 190/2006 Dekretuak lurre-ko uhin bidez tokiko telebista digitalaren zerbitzua arautzen da. Dekretu honek baditu gehigarriko aurreikuspen batzuk; horien artean bereziki aipatzekoa da euskarazko eskaintza bermatzeko hizkuntza erregimena. **Gobernu Kontseiluaren 2007ko uztailaren 17 Erabakiz** lehenengo behin betiko baimen administratiboak eta baldintzatuak eman ziren; baimen horiek Kultura Sailburuaren **2007ko urriaren 10eko Aginduz** behin betiko bilakatu ziren. Zuzeneko kudeaketari dagokionez, **Kultura Sailburuaren 2007ko ekainaren 29ko Aginduz** Donostiako Udaleri zerbitzu hori Donostiako barrutian emateko baimena eman zitzaion eta Barakaldo, Portugalete eta Santurtziko Udalei zerbitzua Barakaldoko barrutian emateko baimena. Azkenik, kontratua sinatu baino lehen, Barakaldo, Portugalete eta Santurtziko Udalek uko egin zioten baimen horri.

TDT baimenen emaitzak eztabaida biziak sortu ditu zerbitzu horien emaileen, udalen eta Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzaren artean.

Baimenak esleitzea. **Zorroztasuna eta gardentasuna laneko irizpide**

2009an eta 2010ean Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzaren helburu nagusietako bat plan teknikoetan onartutako ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak emateko baimenak zorrozki eta gardentasunez esleitzeko lehiaketak prestatzea izan da, irismen-zona bakoitzean era askotako zerbitzu-emaileak izan zitezen ahaleginduz eta Euskadiren kultura-ezaugarriak kontuan hartuta.

2010ean, negoziazio luzeen ondoren, TDT baimenak esleitzeko kontratuak sinatu ziren, eta zerbitzuak ematen hasteko epe muga 2011ko maiatzaren 6an finkatu zen.

3. Etorkizuneko erronkak

Martxoaren 31ko 7/2010 Legeak, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Orokorrak, ezartzen duen marko berrian oinarrituta, Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzak Erkidegoan ikus-entzunezko komunikazioa arautuko duten oinarritzko arauak arau-tresna bakarrean biltzen dituen ikus-entzunezko komunikazioari buruzko dekretu berri bat –gaur egun onartzeko zuzemenetan aurkitzen dena– prestatu zuen. Dekretu horrek ezartzen duen arau-marko berriarekin arauzko aldi berri bat hasiko da, eta Dekretu horretan agintzen denaren arabera egin beharko da kudeaketa. Etorkizunerako erronkak, beraz, dekretu horretan agintzen dena aplikatuz etorriko dira zuzen-zuzenean.

Baina arauak sortzeaz gainera, ikus-entzunezko komunikazioaren sektorearen erronkak ekonomiaren krisiaren ondoriozkoak dira zuzenean, krisiaren ondorioz diru publikoa sartzeko aukerak urrituz gainera, publizitateagatik ustez izatekoak ziren diru-sarrerak ere arras urritu baitira. Errealitate horrek irrati-telebistaren zerbitzu publikoaren eredia berriak pentsatzera behartzen du, ekonomikoki irauteko modukoa izateko aukerak ere kontuan hartuz.

Errealismo horretan oinarriturik eta Testuingurua arras aldatu dela jakinean egonik, EITBren erronka nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko hedabideen artean duen erreferentziazko lekua finkatuz eta euskal gizartearen askotarikotasuna islatuko duen eta balio demokratikoak indar handiz defendituko dituen programazio bat ziurtatuz jarraitzea da. EITBk euskararen erabilera sozialerako eta garapenerako erreferentzia izanez jarraitu behar du orobat.

Administrazio publikoan diru-bilketak beherakada handiak izan dituen egoera ekonomiko batean, badirudi ez dela oso zentzuzkoa hitzartutako konpromiso ekonomikoa betetzeko gai ez den urte askotarako kontratuak egiteko formula.

Euskal Ikus-entzunezkoen mapak aldaketa handiak izan ditu itzalaldi analogikoaren ondoren. Gaur egun indarra hartzen ari da tokian tokiko telebista digitalen emisioa eta, irratigintza soinudunaren alorrari dagokionez, frekuentzia-modulazioarekiko uhin metrikoetako irrati-hedapen soinudunerako 34 baimen ematea arautuko duen Dekretua lantzen ari da. TDT bidezko tokian tokiko telebista-zerbitzua eskaintzeko baimenak esleitzeko lehiaketa bukatzen denean, irrati-hedapen soinuduneko eta telebistako zerbitzuetarako baimenak ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua emateko baimen bihurtzea da hasia den prozesu honen helburua. Horrela, martxoaren 31ko Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko 7/2010 Lege Orokorraren bigarren xedapen iragankorraren arabera, baimendunek hama-bost urteko epe baterako egongo dira baimenduta.

Egokitzapen hori guztia sektorearekin elkarriketa malgu eta arin bat mantenduz egin behar da, zeren ikus-entzunezko medioekiko harremanak hizketara irekiak eta elkarrekiko konfiantzazkoak izan daitezela eskatzen baitute azkeneko urte hauetan komunikazio-bideen eremuan geratu diren aldakuntza handiek.